



**ZAINZA BIZITZAREN
ERDIGUNEAN JARTZEA: **ALDARRIKAPENAK****

HARREMANETARAKO

zaintzakuidados@gmail.com

berdintasuna@donostia.eus



ZAINTZA BIZITZAREN ERDIGUNEAN JARTZEA: ALDARRIKAPENAK

Hemen aurkezten dizuegun aldarrikapenen dokumentu hau behean sinatzen duten elkarteek egin dute. Gogoeta prozesu bat egin eta gero, ondorio hauetara iritsi dira:

Aldarrikapen hauen bidez, AGERIAN JARRI nahi ditugu hala familian nola eremu publikoan egiten diren zaintza-lanak, eta duten BALIOA AZPIMARRATU. Izan ere, lan horiek ez dira bakarrik garrantzitsuak eguneroko bizimoduan, oinarri-oinarrizkoak ere badira bizitzari berari eusteko.

Ezin dugu ahaztu zein beharrezkoa den emakumeek eta gizonek, biek, ERANTZUNKIDETASUNA izatea etxe barruan, zaintza-lanei dagokienez. Bestalde, aintzat hartu behar ditugu, baita ere, erakunde publikoek, enpresak eta pertsonak osatzen dituzten komunitateak, horrelako lanen erantzule eta onuradun diren aldetik.

Oraingo honetan, zaintzaile gisa nahiz etxeko langile gisa jarduten duten emakumeek izaten dituzten baldintzetan jarri nahi izan dugu arreta; izan ere, XXI. mendean, gizarte heteropatriarkal, kapitalista eta kolonialista honetan, batzuetan erabateko esklabotzatik gertu dauden baldintzetan aritzen dira lanean. Egoera hori agerian jarritz, bizi garen gizarteari buruzko gogoeta sustatu nahi dugu, eta beste garapen-eredu bat eraiki, bidezkoa-goa, jasangarriagoa eta berdinzaleagoa, zaintza arloko jardunbide egokietan oinarritua. Funtsean, espazio bat

sortu nahi dugu, elkartzeko, harremanetan jartzeko, elkar zaintzeko eta emakumeek langile gisa dituzten eskubi-deen alde borrokatzeko, bai eta lan mota hori duintzeko eta balioesteko ere.

Eta zer dira zaintza-lanak? Gizarte erreproduzioa eta bizitzaren birsorkuntza helburu dituzten ekintza guztiak dira zaintza-lanak. Bestela esan, umeak sabelean haztea, erditzea, heztea, elikatzea, janaria egitea, osatzea, laguntzea, ibiltzen ikastea, etxeko aurrekontua kudeatzea, entzutea, kontsolatzea, ura lortzea, energia aurrezteak, materialak birziklatzea, maite ditugunei laguntzea, partekatzea, gertaerak ospatzea, landareak ureztatzea..., hau da, gure denboraren zati handi bat hartzen duten lanak, gure bizitzako hainbat alderdiren gainean eragina dutenak: familia, lana, gizartea, alderdi pertsonala, aisialdia, ekonomia... Azken batean, mundua funtzionatzea ahalbidetzen duten jarduera horiek guztiak dira zaintza-lanak.

1. BI TALDE PROFESIONAL DESBERDIN DIRELA ONARTZEA ETA BAKOITZAK BERE PROFIL PROFESIONALA DUELA: PROFIL PROFESIONALA DUTEN ZAINTZAILEAK ETA ETXEKO LANGILEAK.

Bi ogibideak ondo definitu behar dira, eta beharrezko eremu guztietan ezagutu, bataren eta bestearen arteko aldeak zein diren jakiteko.

Horretarako, ondo legoke zehaztea zer den zaintzaile izatea, eta horrek berekin zer dakarren, bai eta zer den etxeko langile izatea ere. Oso garrantzitsua da benetako

lana ondo definitzea, ogibide horietako bakoitzean zein diren egiteko zehatzak. Hala, hobeto jakin ahal izango dugu zer behar duten langileok kontratatzen dituzten pertsonak eta norentzat kontratatu behar dituzten (mendekotasunen bat duten pertsonak).

2. BALDINTZA DUINAK, BAI ZAINZAILARENTZAT BAI ZAINDUTAKO PERTSONARENTZAT (BI ALDERDIKO IKUSPEGIA).

Atal honetan, pertsona zainduen nahiz zaintzaileen baldintzak hartu behar ditugu kontuan. Aintzat hartu behar ditugu langileen eskubideak eta betebeharrak, bai eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak ere, beren beharrei erantzuteko autonomoak izan ala ez izan.

Zaindutako pertsonari bermatu behar zaio zaintzak kalitatekoak direla. Erabiltzaileari lagundu behar zaio gaitasun pertsonalak garatzen eta bizi-ohitura egokiak hartzen, bere autonomia sustatzen, baztertua ez egoten, dirua maneiatzen.

Zaintzaileari dagokionez, zerbitzu bat ematen duen langilea den aldetik, gure ustez, prestakuntza izan behar du, beharrezko alorretan, bere lana arrakastaz eta kalitatez egiteko. Baldintza duinekin kontratatua egon behar du, zaintza-lan ona bermatzeko (24 orduko lanaldiekin, zaintza ez dago bermatuta).

Arlo honetan lanean ari diren pertsonen prestakuntza ematea ezinbestekoa da beren lana egiteko behar du-

ten aitortza eta egiaztapenak eskuratzeko eta, hala, bai pertsona moduan bai kolektibo moduan ahalduentzeko. Horretarako, administrazio publikoari behar bezalako azpiegitura sortzeko eskatzen diogu, prestakuntza egokia eta kalitatekoa ahalbidetzen duena eta egiaztapen-prozesuetan gardentasuna bermatzen duena.

3. ZAINZAILARENTZAKO KONTRATU BAT ALDARRIKATZEA. LEGEAK HOBETZEA EDO ALDATZEA LAN HAUEK DUIN EGITEKO (LANSARI ETA BALDINTZA DUINAK).

Zaintza-lanez arduratzen diren pertsonen lan-eskubide duinak izatea eta haien kontratuek baldintza onak izatea; hau da, betebeharrak ez ezik, eskubideak ere izatea, lana ondo ordaindua egotea eta Gizarte Segurantzaren araubidearen barruan egotea.

Gizarte Segurantzaren araubidean sartuta egotea mendeko pertsonak etxean zaintzeaz arduratzen diren pertsonak.

Gizarte Segurantzaren Zaintzaile Profesionalek epigrafe bat izatea.

Legeen bidez babestea lan hauek, hitzarmen kolektibo bat izatea, eskubideak bermatuta edukitzea Gizarte Segurantzaren, lansari duin bat izatea, erretiroa arautua egotea, laneko bajak hartu ahal izatea (ordutegia, lanaldia, atsedendialdiak, baimenak eta lizentziak, oporrak, nominak eta Gizarte Segurantzaren).

Gizarte Segurantzako araubide berezia deuseztatzea, lan sektore honetako emakumeak diskriminatzen dituelako.

Administrazio publikoak kontrol eta fiskalizazio neurriak sortzea, lege horiek bete daitezten. Aztertzea zer baldintzatan eta nola egiten ari den zaintza-lana.

4. ARAUTZEAK LAGUNTZEA DU HELBURU, ETA EZ EMAKUMEAK LAN ESPARRU HONETATIK BOTATZEA.

Lan hori legez arautzeak laguntzeko modu bat izan behar du, eta ez eragozpenak eta mugak jartzeko bide bat, ezinezko gauzak eskatzen dituena. Legea lan sektore honetan dauden errealitateei egokitu behar zaie.

Hobekuntzek ez dute ondorio kaltegarriak ekarri behar, hau da, ez dute lan mota hau sostengatzen ari diren emakumeak kanpoan utzi behar. Administrazio publikoak lehentasuna eman behar die emakume hauei, bai eta erraztasunak ere, beren lanpostuei eusteko, prestakuntza eskainiz, arauak ezarriz eta beren lan egoera hobetuz.

5. EMAKUME ETORKINEK BIZI DITUZTEN EGOERAK KONTUAN IZATEA (ESPLOTAZIOA, NESKAMEAK... ABUSUAK, INDARKERIA...)

Duin bihurtzea gaueko araubidean lanean ari diren pertsonen lana (batzuek "barnekoak" esaten diete, oso izen egokia ez bada ere), egoera irregularretatik ateratzen has

daitezten, horrek lan prekarioa eta esplotazioa besterik ez baitakar. Emakume etorkin askok hiru urteko "irregularitasun epea" jasan behar izaten dute, "extranjeria" legediak ez baitie erregularizatzen uzten, horrek sortzen duen hauskortasunarekin lan esparruan: esplotazioa eta abusuak errazago gertatzen dira kontrataziorik gabe, indarkeria eta "neskame" baldintzak.

Emakumeei baliabideak ematea beren burua ahalduntzeko, bai eta pertsona gisa eta langile gisa beren esku-bideak aldarrikatzeko ere.

Ezinbestekoa da espazioak sortzea, horrelako egoeretan dauden pertsonak haietara hurbildu eta irtenbideak ikusi ahal izateko.

Kontzientziazio kanpaina gehiago egiteko exijitzen dugu, eta prestakuntza eskaintzeko eta baliabideak inbertitzeko... batez ere, administrazio publikoen aldetik.

6. BALDINTZA DUINAK ZERBITZUEN SEKTORE PRIBATUAN

Zerbitzuen sektoreko enpresa pribatuek lan-baldintza onak bermatzea beren langileei, legezko kontratu duinak sinatuz haiekin, prestakuntza eskainiz, berdintasun-planak eginez, sexu-jazarpenik edota jazarpen sexistarik gertatuz gero arreata emateko protokoloak prestatuz, eta lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiteko neurriak hartuz.

Bukatzeko, zaintza-lanei buruz gogoeta egiten jarraitu nahi dugu. Guztion ardua denez, administrazio publikoak zerbitzu eta baliabide publiko unibertsalak eskaini behar ditu arlo honetan, lan hori bidezkitasunez banatu behar da emakume eta gizonen artean eta enpresa pribatuek erraztasunak eman behar dituzte lan hori egiteko.

Gaur egungo sistemaren erdigunean, bizitza jarri behar dugu, eta ez dirua edo merkatua. Bizitzaren erdigunean, zainduak izateko eskubidea jarri behar dugu, errealitateari begiratzen diogunean zaindu beharra kontuan hartu ahal izateko: etxeak zaintzea, bizi garen planeta zaintzea eta geure burua zaintzea.

Egoteko eta harremanak izateko modu berriak pentsatu behar ditugu; zaintza-lanetarako eredu berriak sortu; bizitzaren jasangarritasuna oinarri duen agenda pertsonal, politikoa eta soziala eratu. Hala, eguneroko zaintzalanak, gehienbat emakumeen eskuetan daudenak, agerian jarriko ditugu, sistema iraultzeko, erroitik aldatzeko eta gizarte berri bat eraikitzeko.

Dokumentu hau abiapuntutzat hartu behar da, eraikitzen eta aldatzen doana, begirada asko falta direla jakinda ere, parte hartzera gonbidatzen zaituztegu aldarrikapen hauek lantzen jarraitzeko.

Donostian, 2019.

ELKARTE SINATZAILEAK:

Mara- Mara Elkartea, Elkartu elkartea, ASADE, Bidez Bide Elkartea, Caritas Gipuzkoa, Atzegi, AGI elkartea, Malen Etxea, Haurralde Fundazioa, Emakume Bananduen Elkartea, Etxeko Langile taldea SOS Arrazakeria, Plazandreok, Arrats Taldea, Berdintasunaren aldeko kontseilua.